

Gure baitako demokrazia



Inma Errea
ITZULTZAILEA ETA
IDAZLEA
@inmaerrea

Garai batean, arrunta zen izen bera ematea familia bereko seme edo alaba bati baino gehiagori. Jakina, gero bazekiten moldatzen bereizteko, adibidez, izen bereko bi semeak: Juan txiki eta Juan handi deitu, eta fini! Orduan, banakoak eta banakoan aferak ez ziren gaur bezain muntadunak.

Egun, pentsaezina da halako zerbait gertatzea. Gure gizartean, individualismoak garrantzi handia hartu du, eta toki handia egiten diogu –handiegia– banakoan egoari jardun sozialean.

Demokrazia guztion aferez erabakitzeko modu bat da, non guztien iritzia berdinki hartzen omen baita kontuan –hala dator definituta euskarazko Wikipedian–. Teorian hala izanagatik, gaur egun gure ingurune demokrazia ordezkatzailertan herritarrok, oro har, gure ordezkariak aldian behin hautatzera daukagu mugatuta gure eragina, guztion aferak erabakitzeko orduan. Banako gisa, oso inportanteak omen gara, baina afera kolektiboetan daukagun indarra ez da beharko genukeen bezain handia.

Azkenotan, ugalduta dira aldarriak eta bultzadak herritarren partaidetza (erreferendumak eta bestelako prozesu partizipatiboak) areagotzeko, eta hori ona da lau urtean behingo hauteskundeetan parte-hartzearen langa gainditze aldera. Dударik ez dago, norabide hori da egokiena aurre egiteko demokrazia urardotzen

dufen fenomenoei –lobby ekonomikoen presioei, kasu–.

Baina nago ez dugula aski horrekin.

Herritar batek erakunde batean kargu bat hartzen duenean, zoriondu egiten dugu. Ez dakit, ordea, jokaerarik hoberena den. Egokia da, dudarik ez, zori ona opatzea haren jardunean, baina zoriontzek aditzera eman dezake sari bat irabazi duela, zor zitzaien merezimenduzko sari bat, eta kargua hartzeak hartzailea handi(ago) bihurtzen duela.

Eta kargu publiko bat –beti, izendapenezkoa izan edo administrazio-karrerakoa– ez da sari bat, baizik eta herritarrei zerbitzu egiteko (lan)postu bat. Eta zerbitzu egiteko postu bat denez, ardura bat darama berekin, herritarrei ahalik eta hobekien zerbitzu egiteko ardura, eta horregatik egokiagoa iruditzen zait, inork halako kargu bat hartzen duenean, pertsona horri eskertzea –ez haren egoa hanpatzeko, baizik eta ohartu dadin hartu duena ardura dela, eta ez saria!– ardura hori –errepublikan (*res publica*-n, ororen gauzetan) aritzeko erantzukizuna– hartu izana, herritar arrunt izatek herritarren zerbitzari izateko urratsa egiten izana.

Gure baitan pentsamolde hori errotuz gero, gertatzeko zailagoak bihurtuko genituzke, adibidez, ustelkeria bera eta, batez ere, ustelkeria onartzeko jaidura. Demokrazia sakonagoa izanen litzateke, helduagoa, osatuagoa. ■

Tentagarria



Edu Zelaieta
IDAZLEA

Tentagarria iruditu zaio, praktika ez-zientifikoa bada ere, parekidetasunaren aldeko urratsak eman dituzten estatuak auto-matrikularen arabera neurtzea. Izan ere, etxetik kanpo egindako azken oporraldia baliatuta, P-dunetan gidari doazen emakumeen kopurua E-dunetan gidari doazenak baino apalagoa dela ikusi du; hala berean, F-dunetan eta GB-dunetan doazenak E-dunetan baino gehiago direla ohartu da.

Tentagarria iruditu zaio unibertsitateko irakasle-ikertzaileari, hilero jasotzen duen jorنالak halako praktika ez-akademikoak babesten ez baditu ere, parekidetasunaren aldeko urratsak

matrikulaka sailkatzea. Izan ere, familia kasuetan bereziki, joera nabaria da nork daraman lema, nork hartzen duen rol aktiboa (eta nork ez), noren eskuetan jartzen diren autoan doazen guztien biziak.

Tentagarria iruditu zaio, lagina eta metodoa estandarrak ez badira ere, matrikuletan ikusi uste duen errealtatearekin ondorioen bat ateratzea. Izan ere, bolanteari heltzen dioten esku gehienak, matrikularen letra larria gorabehera, gizonenak dira: gizon zuriagoak, gizon beltzaranagoak, gizon zaharragoak, gizon gazteagoak; hots, lau gurpiletan ere, bi hankatan bezala, gizona nagusi. ■